

IÑIGOREN IZEN-ABIZENAK

Iñigo Loiolakoak *iru izen* erabili ebazan bere bizitzan: Eneko, Iñigo eta Iñazio. Berezko eta asierako izena *Eneko* zan, Azpeitiako papere zaarretan agertzen danez. Erroman be izen orrekin izenpetu eban, Aita Santuari, Jerusalem'era Joateko baimena eskatuz, egin eutson eskabidean: *Enecus de Loyola*. Ogeita amabi urte ebazan. Badirudi orixe zala bere izen ofiziala: *Eneko*.

Gerora, La Sorbona Paris'eko Unibersitatean sartzeko, izena aldatu eban, Eneko'ren ordez *Iñazio* ipiñiez: *Ignatius de Loyola*. Izen barri ori erabiliko dau baita, Maixutzako agirietan.

Bi Maixutza jaso ebazan: bat Arteetan eta bestea Teolojian. Titulu orrek irakaskintzarako eskubideak emoten ebazan eta eskubide orreik bearrezkoak ebezan bai Iñaziok eta bai bere lagunek be. Andik aurrera Maixu lez agertzen danean beti *Maestro Ignacio* izenarekin egingo dau.

Or daukaguz bere bizitzako aro desberdinbitan izen ofizialbi: asieran *Eneko* eta aizkenean *Ignacio*. ¿Eta, bien bitartean?

Bien bitartekoa dogu *Iñigo*: errian, lagunen artean, senitartean... beti izango da, asieratik amitzeraino, *Iñigo*. Etxean bere Eneko izena Iñigo'ra aldatu eutsoen eta beti, gauza ofizialik ez danean, izen orrekin agertuko jaku.

Eneko, Iñigo, Iñazio eta gaur, barriz, Iñaki.

Orra lau izen gizon ospetsu batentzako.

* * *

Abizenak. Bi etxe ebezan, torredunak: bat mendian *Oñaz* izenekoa; bestea ibarrean, *Loiola*. Etxe onetatik artu eban bere abizena: *Iñigo de Loyola*. Bere aurrekoek oster, *Oñaz* etxetik be artu eban. Zaiñak Iñigori etxe bi orreitatik datorkioz. Beste aurreko batek *Lazkano* artzen dau.

Ona iru etxe eta iru abizen loiolatarren artean: *Oñaz*, *Loiola*, *Lazkano*. *Oñaz*'tik sortu ziran *Oñaztarren* eta oneik *Ganbotarren* aurka burrukatzen eban. Alderdi bi burrukan, alkarri erasoten. *Oñaztarren* buruzagi, *Lazkano* eta *Loiola*.

Burruka giroa, odol giroa... Bitartean, nagusikeri orreri aurpegia emoteko, sakabanatuta egozan etxeak alkarren inguruan *batzen* asi ziran eta orrelan sortu ziran *erri-billak*. Erderazko "villa", nere ustez, ortik sortuko zan, euskerazko "billa" edo "bildutik".

1451'an, Iñigo jaio baiño berrogei urte lenago, Aide Nagusiak, Gipuzkoako jauntxoek, eupadea egin eutsen billa orrei: Deba, Azpeitia, Azkoitia, Tolosa, Ordizia,

Segura, Getaria eta Mutriku'ri. Danen artean Anaidi bat sortu eban alkarren laguntzarako.

Eupada eta eraso au dala-ta, Henrike IV'ak, Aide Nagusien etxe-torreak moztea erabazi eban eta arrezkeroz Loiolako torreak bere goi-zatiak ladrilluz egiñak ditu arriaren ordez.

Gaiñera, egoaldera bialdu ebazan, Ximena ingurura, moroekin burrukatzera euren kontura eta euren soldaduekin. Lau urte iraun eban erbeste arek.

Alaz ere, Erregearen babesik ez eban galdu, eurak eta euren aurrekoak moroen kontrako burruakaitik.

ARRINDA'TAR ANES

GORAGO BETI, ZEURE GOGO ORI...

Serantes inguruan odei gorriak,
eguzkia sartuta mendin atzian.
Illunak asi dira lurrez ganian,
argi dago bakarrik sarkal-ortzia.
Illunabarra...

Astiro, astiro, eguzkia jatsi da...
Aize otzak otzitu daust biotza;
Alaitasuna, ezta neure laguna.
¡Gorago beti, zeure gogo ori!

Itxas erdian dago anai maitia,
Mexiko'rantza duan itxasontzian.
Onantza bigurtzen dauz bere begiak.
Euzkadi da berentzat, gaur sorkaldia.

Eta ikusten dau itxas ganetik
eguzkia jagiten disditsu, gero
abestuten asi da, alai ta bero.
¡Gorago beti, zeure gogo ori!

Gizonen oldozpenak, uts-utsak dira.
Eguzkia ilten zeure begiaz,
ikusi dozu, ta iezta egia!
Gorago beti, zeure gogo ori!

¿Noraño altsa biar dot biotz epela?
Jaungoikuaganaño
Bera da Egia,
Bizitza ta Bidia.

UTARSUS